ZUZENBIDEA ETA GENETIKA

GARBIÑE BIURRUN
Magistratua
Tolosako Epaitegia

I.- SARRERA

Betidanik, gizakiok beste izakiak kontrolatzen saiatu gara, eta, gure helburuak lortzeko, izaki horiek aldatzen, batez ere, zenbait landare eta animalia gurutzatzen. Orain arte, teknika horiek arazo handirik sortzen ez bazuten ere, egoera erabat aldatu da, gaur egun bioteknologia modernoaren prozedurak garai bateko teknika horiek ordezkatzen ari direlako eta –hemen dago kakoa- lehen aldiz, izaki guztiak nahi bezala alda ditzakegulako metodo guztiz fidagarrien bitartez eta, batez ere, biologia eta genetika zientziak gizakumearengan beraien eraginak zabaltzen hasi direlako eta aurrerapen hauek, gizakiak bere espeziea bera alda dezakeelako, eztabaida zorrotzak sortzen dituzte maila guztietan.

XX. mendeko azkenengo hogeita hamar urteotan maiz irakurri edo entzun ahal izan ditugu albiste harrigarriak: 1978an Erresuma Batuan Louise Brown jaio zen "in vitro ernalkuntza" edo "lagundutako ernalkuntza"ri esker; 1984an gauza bera gertatu zen Bartzelonan Victoria-Ana haurra jaio zenean, eta Gurutzetako Ospitalean berehala izan zen horrelako lorpen bat. Aurrerago, 1989an Australian Zoe jaio zen, umeki edo enbrioi izoztu batetik jaio zen lehen gizakumea; DNAren azido desoxirribonukleikoaren bitartez pertsona bakoitza identifika daitekeela erregistro genetikoaren bidez jakin dugu baita ere, eta izakiak klonatzea edo errepikatzea posible dela ere bai.

Albiste edo gertaera hauen guztien inguruan izugarrizko arazo juridikoak planteatzen dira, adibide gisa batzuk bakarrik aipatuko ditudalarik: nork du umeki edo enbrioi izoztu bat erabiltzeko ahalmena; zein da enbrioi hauen status juridikoa; nola berreskuratu daitezke banku berezietan utzitako gametoak; zilegi al da senarraren edo lagunaren espermarekin intseminatua izatea; kasu batzuetan, zein da haurraren ama, ama biologikoa ala haurdunaldia aurrera eraman duena eta haurra erditu duena; eta hirugarren ama bat tartean dagoenean (enkargua egin duena, hain zuzen ere), zer gertatzen da?

Garbi ikusten da lorpen biologiko hauetako bakoitzak galdera eta zalantza ugari eta garrantzitsuak planteatzen dituela, batez ere betiko ustezko egiak behera erortzen zaizkigulako (ama bakarra da, amatasunari buruz zalantzarik ez dago...).

Gai arazotsu hauei buruz zientzia askok dute zeresana: biologiak, giza zientziek -zuzenbidea barne- eta etikak berak. Baina zientzi desberdin hauen artean lotura sakonak aurki ditzakegu, batez ere Etika eta Zuzenbidearen artean, eta azken hauen eta Biologiaren artean, gaur eguneko gizartea aurrera badoa ere, demokraziak eta zientziak

ematen dituzten bultzakadei esker baita. Horregatik, zientzialari eta organo erabakitzaileek (Botere Legegileak -Parlamentua- eta Botere Exekutiboak -Gobernua-) elkarrizketa serio bati ekin behar diote, hausnarketa etikoa bultzatuz, kultura eta pertsona guztien oinarrizko eskubideak errespeta daitezen.

Bioetikak (biologia eta etikaren arteko harremanetatik eratu den zientzia berriak) baditu betebehar garrantzitsuak: aurkikuntza zientifikoetatik sortutako ahalmen berriak gizartearen aurka joan ez daitezen bermatzea, zientzia eta teknologiaren aurrerapenak gizartea bera apurtzeko erabili ez daitezela bermatzea, eta gai berri hauen giza ikuspuntua eztabaidaren barruan mantenduko dela bermatzea.

Denok dakigunez, ezagupen berri hauen aplikazioek pertsonen oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak mehatxa ditzakete, zenbait arlotan, eta horregatik, arrisku horiek aztertzen saiatuko naiz lantxo honetan zehar.

II.- ZUZENBIDEA ETA GIZARTEA

Lehenik eta behin, jardunaldi hauen antolatzaileek proposatutako, eta neronek onartutako izenburuari buruz azalpen bat egitea beharrezkoa iruditzen zait, batez ere gaurko entzulegoa zientzialariek, eta ez legelariek osatzen duzuelako.

Zuzenbidea gizarte batean gizakien jarrerak arautzen dituen arauen multzoa bada ere, errealitateari begirada bat emanez gero, berehala lotu ditzakegu Zuzenbidea eta Boterea. Hau da: Zuzenbidea azaltzen da Estatu baten subiranotasunaren azalpenik garrantzitsuenetariko baten modura, eta horrela, botere horren bitartez, arauak errespetarazi egiten dira, nahiz eta horretarako indarra erabili behar izan, Estatuak, Zuzenbidearen bitartez, gizartearen elkarbizitza antolatzea zeregin nagusia duelarik.

Beste hitzetan: Zuzenbideak gizakien bizitza gizartearen barruan arautzeko asmoa du, gizarte horren antolakuntzarako teknika bat bihurtuz. Horrela, Zuzenbidearen objektuak gizakiak eta giza bizitza dira.

Gizakia, pertsona hitzaren zentzu filosofikoari jarraituz, izaki libre bat da, aukeratzeko ahalmena duelako, nahiz eta baldintzaturik eta bere garaian kokaturik egon.

Pertsonaren duintasuna norberaren autonomian oinarritzen da. Askatasun psikologiko horrek desberdintzen ditu gizakiak eta beste gainerako animaliak.

Askatasun hau besteekin garatu eta egikaritzen da gizarte barruan, gizartetik kanpo erabateko pertsona ezin baita izan, pentsamendu eta kultura beste gizakiekin sortzen diren harremanen markoan gauzatu egiten delako.

Honela, azken finean, Zuzenbidea gizarte-errealitateari lotuta azaltzen zaigu, hor barruan ematen diren harremanak arautzea helburu duelako, alde batetik, eta indar sozialengandik sortzen delako, bestalde.

Beraz, Zuzenbidea gizartearen ordena bat mantentzeko tresna ezin hobea izan daiteke, baina benetako aldaketa soziala lortzeko prozesu bat indartzeko biderik egokiena bihur daiteke baita ere: legalitatearen eta arauen bitartez errealitatearen aldaketa sakonak sortu edo debekatu egin daitezke, ikusi dugunez.

Esan dugu, eta hau azpimarratzekoa da, Zuzenbidearen sorreran faktore sozial eta garapen historikoak dutela eragin handia: errealitate ekonomiko, sozial, idelologiko, tek-

niko, politiko eta zientifikoen aurrean pertsonek hartzen dituzten jarrerak pertsona horien interesak bihurtzen dira, eta interes horien arabera, talde edo klaseak sortzen.

Talde horiek, gero, interes horiek aurrera eramateko presioa egiten dute, komunikabideetan, iritzi publikoaren bitartez, Zuzenbidearen erantzun bat eskatuz eta, modu honetan, arau berriaren edukia nolabait baldintzatuz.

Ohar bat egitea beharrezkoa da momentu honetan: Zuzenbidearen sorreran errealitatearen eragina aipatu eta gero, gogoratu behar dugu sistema demokratikoetan Zuzenbidearen sorrera horretan hiritarren partaidetza onartuta dagoela, zuzenean, errefe-rendumaren bidez, nahiz zeharka, organo legegileak osatzeko egiten diren hauteskundeetan parte hartuz, nahiz beste era batzutan (zinpekoen epaimahaiaren bidez justizia administratzerakoan, hezkuntza-munduaren bidez...). Honela, hiritarrek parte hartzen dute ordenamendu juridikoaren oinarrian dagoen boterean eta zilegizko botere bat sortzen da, botere legitimorik gabe ez baitago justiziazko Zuzenbiderik.

Gizakiok, beraz, arau-egileak garenez gero, Zuzenbidearen oinarrian kultura bat aurkitzen dela ondorioztatzea erraza egiten zaigu: giza bizitza sozialak gizaki konkretuen artean, momentu konkretu batean ematen diren harremanen gainetik dago. Egia da giza bizitzak edo harreman horiek beste gizakiek izandako harremanekin bat egiten duela, esperientziak bilduz eta ondorengo belaunaldiengan eragina izanik. Horrela, izaki guztien artean, gizakia da kultura daukan bakarra, bere barruan indibidualki edo kolektiboki gordetzen baitu beste gizakien ekintzen oroimena.

Gizakiek, beraz, kulturaren bitartez, badakite beraien arteko harremanak nola arautzen diren gaur egun (eta nola ararutzen ziren lehen), baita arau idatziak jasotzen, ohiko arauak ezagutzen dituztelako ere.

Bide honetatik, erraz iritsiko gara moralaren kontzeptura. Nahiz eta morala definitzen oso zaila izan eta filosofo asko horretan saiatu etengabe, gure gaiari lotuz, morala gizakien askatasuna arautzeko araudi propioa dela esan genezake; hau da; gizakiek, inolako kanpoko botereren laguntzarik gabe, onartutako arau multzoa. Gizarteak aurrera doazen heinean, gero eta urrunago daude Zuzenbidea eta Morala elkarrengandik, edo errazago bereizten dira, behintzat: gizarte primitiboetan ohitura sozialen artean ez zegoen berezitasunik eta denak ziren arauak (bai etikoak, bai juridikoak edo zuzenbidezkoak). Zuzenbide eta Moralaren arteko desberdintasunaren arazoa gizarte modernoan sortzen da, gizartearen sekularizazio prozesuari lotuta..

Ordurarteko egoera hauxe zen: edo aipatutako bi kontzeptuak erabat nahastuta zeuden esan dugun bezala, edo Moralak zuen lehentasuna, Elizaren ahalmena zela medio.

Nahiz eta arazo honek teoria mailan pil-pilean jarraitu, bi araudi horien (Moralaren eta Zuzenbidearen) arteko harremana sakona da, biak gizakiengandik sortuak direlako eta gizakiei zuzenduta azaltzen direlako. Gainera, gaur egun, errazago ikus daiteke bien arteko lotura hori, oinarrizko giza eskubideen bidez, hauek gidatu behar baitituzte Zuzenbidearen sorrera eta moralaren bilakaera, justiziaren ideia osatuz.

Justizia ideiak, gaur egungo gizarte modernoetan, Zuzenbidearen baloreei buruzko hausnarketa kritiko bat egiteko eginbeharra du, beste balore desberdin batzuk proposatuz, ordenamendu juridiko horren helburuak aldatu ahal izateko.

Justiziak, beraz, ordenamendu juridiko (zuzenbideak) eduki behar dituen elementu moralei buruzko azterketa egiten lagunduko digu. Norberto Bobbio-k esaten duen bezala

"behin eta berriro berpizten dena da zapalkuntzaren aurkako askatasunaren beharra, bereizkeriaren aurkako berdintasunaren beharra eta gudaren aurkako pakearen beharra". Giza bizitza duintasun osoz bizitzea posible egiten duen balore horien itzuleraz mintza gaitezkeela dio, beraz, filosofo italiarrak, eta hiru balore aipatzen dizkigu bereziki, ikusi dugunez: askatasuna, berdintasuna eta pakea.

Kultura juridiko modernoan balore horien garapena oinarrizko eskubideen eskutik dator, lehen aipatu dugun bezala. Horrtik aurrera, eskubide horiek ez zaizkie lotuko indibiduo isolatuei bakarrik, baizik eta gizaki-klase edo taldeei ere, bide honetatik "justizia" hobeto neurtu dezakegu eta.

Balore hauek Zuzenbidearen barruan sartzen dira gizartearen gehiengoak horrela onartu dituelako, eta baita ere, botere demokratiko batek posible egiten duelako gizarte horren parte hartzea araudia eraikitzerakoan, lehenago adierazi dugunez.

Horrela, botere demokratiko batek, aldez aurretik finkaturiko arau batzuk jarraituz, errealitate soziala arautzeko ahalmena du, zenbait balore aintzakotzat hartuz, gizarte horren barruan ematen diren harreman oro balore horien mendean gera daitezen.

Gaiaren bigarren zatiari hasiera eman baino lehen ohar bat beharrezkoa da: legelariok, giza errealitate berri bat ikertu nahi dugunean, oztopo larriak aurkitzen ditugu gero eta maizago gure aurrean, batez ere, errealitate horren sorreran aurrerapen zientifiko edo teknologikoek eragin erabakigarria izan dutenean. Zailtasunik handiena azaltzea erraza da: edozein errealitate juridikoki aztertzeko, legelariok errealitate hori ahalik eta ondoen ezagutu behar dugu. Eginbehar honek giza harremanak ikertzerakoan ez du arazorik planteatzen, edo, behintzat, sortzen diren arazoak gainditzeko modukoak dira. Baina, giza harreman horien azpian berrikuntza teknologikoak edo asmakizun zientifikoak aurkitzen ditugunean, legelarion lana bertan behera geratzeko arriskuan dago, asmakizun edo berrikuntza horien alderdirik nabarmen edo garrantzitsuenak antzematen saiatzen ez bagara aldez aurretik.

Arrisku hau eta nire ezagupen tekniko eza kontuan hartuz, eta nahiz eta hori oztopo handia izan niretzat, galdera edo arazo batzuk planteatzen saiatuko naiz, Zuzenbidearen ikuspegitik, baina erantzun gutxi edo oso orokorrak emango dizkizuet.

III.- GIZA GENOMARI BURUZKO IKERKETAK

Laurogeita hamargarren hamarkadaren erdialdera hasi ziren ematen "Giza Genoma Egitasmoa" sortuko zuten lehen pausoak, ikerketa ekintza-desberdinak nazioarteko mailan koordinatuz.

Zientifikoki Egitasmo edo Proiektu hau DNAn (azido desoxirribonukleikoan) datza: DNA molekula bat da izaki bizidun baten informazio genetiko guztia biltzen duena. Genoma zelula baten DNAren talde osoa da eta organismo baten zelula guztietan berdina da.

Kode genetikoa nola antolatzen den azaltzen zaila da legelari batentzat, baina, laburpen gisa, eta biologoek maiz erabiltzen duten adibide batez baliatuz, esan genezake kode genetikoa hiztegi bat dela, baseak hizkiak izango direlarik, aminoazidoak hitzak eta proteinak esaldiak. Giza Genoma osoa mila orrialdeko berrehun liburuko liburutegi batek osatuko luke, arazoa hauxe delarik: liburu horiek hizkuntza ezezagun batean idatzita

daude, eta Genoma ezagutzeko itzulpena beharrezkoa zaigu. "Giza Genoma Egitasmoa"k erronka hori du aurrean: liburutegi hori itzuli hizkuntza ezagutu eta gero.

DNAk betebehar garrantzitsu batzuk ditu, herentziaren oinarria denez gero: a) geneek gizaki bizidunen ezaugarri fisiko guztiek dituzte bere barnean, gurasoengandik semeengana transmititzen direnak; b) espezie baten barruan izaki bizidun bakoitza identifikatzea posible egiten du. DNA ez da berdina izaki guztietan, alde genetikoak badaude eta; eta c) espezie baten eboluziorako oinarria da: ezaugarri genetikoak ez dira beti era berdinean transmititzen; batzuetan, oso gutxitan egia esan, akatsak gertatzen dira (mutazioak), akats horietako askok, bizitzarekin bat ez datozelako, ez dute irauten; beste batzuetan, aldiz, mutazio horiek izaki bizidun horri abantailaren bat ematen diote bere ingurura egokitzeko: kasu horietan mutazioa genoma barruan gordetzen da eta oinordekoei transmitituko zaie, eboluzioa edo bilakaera horrela gertatzen delarik: mutazio batzuk transmitituko ez balira, ez litzateke aurrerapenik egongo.

Giza Genomari buruzko ikerketek planteatzen dituzten arazoak konpontzeko asmoz, UNESCOk Deklarazio berezi bat onartu du giza eskubideak babesteko eta aurrerago aztertuko dugu.

IV.- INFORMAZIO GENETIKOA

Giza Genomari buruzko ikerketen helburuen artean, dakigunez, DNAren ezaugarrien ezagupena aurkitzen da, batez ere geneena eta hauen funtzioak eta beraien parte hartzea herentzia biologikoa transmititzerakoan. Honela, ikerketa horien ondorioz, asma daiteke zein diren gaixotasun batzuen jatorriaren gene arduradunak, bere transmisio-tresnak eta bere seinaleak.

Ikerketa hau aurreratzen denean posible izango da, baita ere, jakitea zein genek duen eragina pertsonengan sortzen diren joeretan, trebetasunetan edo gaitasunetan.

Azterketa horiek gizaki konkretuengan egiterakoan eta bere emaitzak erabiltzerakoan arazo larriak sortuko dira: nola lortu informazio hori eta nola erabili gero, gizaki horren interesen eta besteen interesen artean izugarrizko gatazkak piztu daitezke eta. Horregatik, kasu bakoitzean neurtu egin behar da noraino iritsi daitekeen azterketa genetiko hau, baina beti, berma orokorrak ezarriz.

Azterketa genetikoek pertsonei buruzko oso informazio garrantzitsua erakutsi dezakete, datu biologikoak, gaurko eta etorkizuneko osasunari buruz (osasun mentala barne); norberaren ugaltzeko gaitasunari buruz; ondorengoaren osasunari buruz; beste pertsona batzuekin izandako harremanak (aitatasuna, delitu batean parte-hartzea); edota gaitasun intelektualak, portaerak, joerak, tasunak...

Beraz, aipatutako arazoek eragin handia izan dezakete bai pertsonen askatasunarekiko (norberaren baimenik gabe egiten badira azterketa hauek), bai bere intimitatearekiko (analisi genetiko horien emaitzak edozeinek eskuratzen baditu, nahiz eta era zilegi batean edo helburu zilegi bat lortzeko asmoz), eta baita ere, informazio horren erabileraren helburuekiko.

Informazio horrek pertsona zehatz baten funtsezko datuak eskainiko dizkigu, bere intimitatea erasanez, baina baita ere, bere osasuna eta bere oinordekoena babesteko balioko dutenak. Halere, informazio hori kontrolik gabe zabalduko balitz, arrisku handia sor-

tuko litzateke: gizakia zeharo transparentea bihurtuko genukeelako; edozein motatako diskriminazioa edo bereizkeria bultzatuko lukeelako -nahiz senitartekoen artean, naiz lanharremanen munduan, nahiz aseguru-polizak kontratatzerakoan, nahiz populazio talde batzuk estigmatizatzeko giza harremanetarako gai ez direla esanez-. Gainera, oso informazio zabala izango denez gero, informatizazioaren bitartez maneiatuko da, honek dituen abantaila guztiekin, eta sortzen dituen arazoekin, baita ere (horrela prozesatutako informazioa oso zaurgarria bihurtzen baita).

Beraz, datu genetikoak babestu egin beharko dira beraien isilpekotasuna bermatuz, eta informazio hori erabiltzen duen edozeini sekretu-betebeharra ezarriz, azterketa genetiko horiek nork egin ahal izango dituen erabaki eta gero, noski.

1.- DATU GENETIKOAK ETA INTIMITATEAREN BABESA

Intimitatearen babesa benetako arazo bat bihurtzen ari da azkenengo hamarkadatan, oinarrizko eskubide hau urratzeko bideak eta prozedurak asko ugaritu baitira (batez ere, irudia eta soinua grabatzeko baliabide tekniko eta datu pertsonalak gorde eta prozesatzeko tresnen bitartez).

Gaur egun intimitateak ez du jadanik eduki patrimonialista edo autonomistarik: intimitatea nortasunari lotutako eskubide bat da, giza eskubidetzat hartua (honela aldarrikatzen da Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 12. Artikuluan eta Espainiako 1978ko Konstituzioaren 18. Artikuluan), beste eskubide publiko edo pribatu batzuen gainetik dagoelarik.

Materia hau delako LORTADek arautzen du (Ley Orgánica reguladora del Tratamiento Automatizado de Datos de Carácter Personal), baina Europako Kontseiluko 1981eko Urtarrilaren 28ko Hitzarmena aplikagarria zaio baita ere. Zuzenbide Penalaren parte-hartzea ere ez dugu ahaztu behar, eskubide horren urratzeak oso larriak direnean. Gai hau arau sektorialetan ere jasota dago, 1986ko Ley General de Sanidad delakoan bere 10-3. eta 61. artikuluetan datu guzti hauek isilpekotasunean gordetzeko gaixoen eskubidea aintzatetsiz.

Gaia agortzeko asmorik gabe, informazio genetikoa orokorrean babesteko irizpide batzuk eman daitezke:

a).- interesatuaren baimena, askatasun osoz eta beharrezkoa den informazio guztia jaso eta gero, bermatu behar da edozein azterketa genetiko burutzeko. Beraz, derrigorrezko azterketak debekatu beharko lirateke, gero aipatuko ditugun salbuespenak izan ezik.

b).- edozein analisi genetiko egiteko, interesatuak, bere baimena eman baino lehen, informazio osoa jaso behar du, azterketa horien emaitzei eta arriskuei buruz batez ere.

c).- azterketa horien emaitzen sekretua bermatu beharko da eta datu horien eskurapenari mugak ezarri beharko zaizkio.

d).- osasunaren eremuan egindako analisi genetikoen emaitzek ez dute bereizkeriarik edo diskriminaziorik sortuko, ezta bizitza pribatuan ere.

2.- ANALISI GENETIKOEN ERABILERA LAN-HARREMANETAN

Lehenago aipatu dugu giza genomari buruzko ikerketek hainbat gaixotasun tratatzeko aurrerapauso izugarria suposatuko dutela, eta, baita ere, aldez aurretik jakin ahal izango dugula pertsona bat noiz gaixotuko den edo, behintzat, gaixotzeko joerarik ba ote duen. Informazio hau guztia, ikusten denez, oso helburu onetarako erabil daiteke, baina, bestalde, tresna paregabea da arazo larriak sortzeko.

Horrela, enpresariek, beraien langileei edo lanpostu bila dabilenari azterketa genetiko hauek egiteko interes handia eduki zezaketeen, emaitzen ondorioz, pertsona horien kontratazioa ukatzeko, nahiz eta momentu hartan gaixorik ez egon, hori dena bereizkeria praktika bat dela frogatzen oso zaila izango delarik.

Beste kasu batzuetan, langileentzat interesgarria izan daiteke datu horiek ezagutzea: etorkizunean harrapa dezaketen gaixotasunak lanpostu zehatzarekin edo lana egiten den inguruarekin lotura bat duenean, kasu horietan langileak beste enplegu bat bilatzea erabaki baitezake edo prebentzio-neurriak hartzea posible izango zen eta.

Azkenean, azterketa horiek beste langile eta hirugarrenentzat interesa izan dezakete: lankideentzat eta enpresa horrek eskaintzen dituen zerbitzuak erabiltzen dituztenentzat.

Halere, analisi genetiko horien itxurazko ontasuna baliorik gabe gelditzen da kontuan hartzen badugu aipatutako helburuak lortzeko unerik egokiena ez dela, lanpostua lortu nahi duenarengan oraindik ezgaitasun arrazoi edo kausarik ez badago. Gainera, pertsona horri buruzko lortutako informazioa oso gaizki erabil daiteke, eta horren ondorioz, zenbait populazio-talde lan-merkatutik at utz daiteke, marjinatu-klase berri bat sortuz, ikerturiko subjektu horien senitartekoak barne.

Ikusten dugunez, lan-arloan, informazio genetikoaren inguruan subjektu desberdinak azaltzen dira, gehienetan interes kontrajarriak dituztenak: horregatik, ikerketa genetikoak aztertzerakoan ez dugu jarrera manikeorik hartu behar, zuriaren eta beltzaren artean grisa mota asko aurki ditzakegulako. Beraz, interes horiek guztiak adiskidetzen eta behar den oreka aurkitzen saiatu behar dugu.

Lan-arlo honetan, bestalde, gaixotasunaren kontzeptuak eduki eta ondorio desberdinak ditu, beste zenbait arlorekin alderatuz gero. Mundu honetan garrantzia duen gaixotasun bakarra langilearen lanerako gaitasuna murrizten edo erabat ezabatzen duena izango da, eta etorkizunean harrapa daitekeen edozein gaixotasun kontzeptu orokor horren barruan ez genuke sartu behar, eta gaitz horrek ez luke langile horrentzat ondoriorik eduki behar, gaixotasun horien eta lan-inguruaren arteko loturatik kanpo, eta kasu honetan ere, gaixotasun horren sorrera galarazteko edo, behintzat, arriskua murrizteko asmoz bakarrik, prebentziozko neurrien bitartez.

Langile edota langile-gaien eta beste pertsonaien (lankideak eta enpresaria) interesak babesteko, gai hau arautzerakoan, balore batzuk aintzat hartu beharko dira, hain zuzen ere, zenbait oinarrizko eskubide errespetatuz, Espainiako Konstituzioan, eta beste hainbat Konstituziotan eta Nazioarteko Hitzarmen eta Itunetan aldarrikatzen direnak, osasuna, osotasun pertsonala, intimitatea, enplegu bat lortzekoa, diskriminatua ez izatekoa, autonomia pertsonala, ikerketa horiek egiteko baimena eman ahal izatekoa...

Gai hau arautzerakoan, irizpide edo printzipio batzuk jarraitu beharko lirateke, aipaturiko oinarrizko eskubide horiek benetan bermatzeko:

a).- Interesatuaren baimenak derrigorrezkoa izan beharko luke, behar den informazioa jaso eta gero. Printzipio honek oso muga orokor bat finkatzen du, eta abiapuntu minimo bat besterik ez da, baina kontuan hartu behar dugu baimenak berak ez duela zilegi bihurtzen edozein ikerketa genetiko edo beronen erabilera.

b).- Analisi genetikoa egitearen debeku orokorra lanpostu baterako aukeraketa-prozeduraren barruan.

Printzipio honek adierazten du enpresariak ezin duela horrelako analisirik eskatu edozein lanpostutarako hautagaien arteko aukeraketa egiterakoan; hau da, nahiz eta hautagaiak bere baimena emateko prest egon, analisi hauek egitea onartezina izango litzateke, jarrera horrekin beste hautagaiekiko berdintasuna mantenduko ez litzatekeelako. Hemen ikusten da lehen aipatu duguna, hauda, zenbait kasutan, interesatuaren baimena ez litzatekeela nahikoa izango analisi hauek burutzeko.

Printzipio honek, halere, salbuespen batzuk izan ditzake, zenbait lanbideri buruz, langileen osasuna hirugarren pertsonentzat oso garrantzi handikoa denean.

c).- Enpresa barruan, lanpostuz edo kategoriaz aldatzeko -igoera kasuetan eta mugikortasun funtzionalaren kasuetan, adibidez- debeku berdina mantendu beharko litzateke.

Argi dago irizpide honen oinarria aurrekoarena bezalakoa dela, enpresariak ez baititu eskubide gehiago maila honetan lan harreman baten barruan egoteagatik, eta bermatu behar diren eskubideak guztiz berdinak direlako.

Lehen aipatu dugun bezala, kasu honetan ere, salbuespen batzuk aurki ditzakegu, lanpostu berriaren edukiaren arabera.

d).- Lan-eremu edo produkzio-jarduerari lotuta dagoen langileen osasunaren babeserako zenbait neurri hartzeko betebeharra.

Printzipio honen oinarrian enpresariak dituen zenbait betekizun azaltzen dira, langileen osasuna eta osotasuna kalte ditzaketen arrisku guztiak neurtzea, maila guztietan; langileen osasunerako zenbait agente kimiko, fisiko edo biologikorekin lan egiteak arriskurik ez suposatzea bermatzea....

Beraz, langilearen osasunerako prebentzio-neurriak hartzea onarturik egongo litzateke, aipatutako printzipioen arabera, neurri horien artean, zenbait kasu berezitan, analisi genetikoak daudelarik.

e).- hirugarren pertsonekiko kalte-arriskua prebenitzeko, derrigorrezko zenbait analisi genetiko egiteko aparteko baimena onartuko da.

Printzipio hau zenbait lanbide bereziri lotu behar zaio, bidaiarien gidariak, nahiz hegazkinez, trenbidez edo errepidez..., baina beti baldintza batzuk betez (lanpostuak berak arrisku bat suposatzea hirugarrenentzat; arriskugarritasun hori legez arautua izatea, lanbide zehatzak aipatuz irizpide objektiboen bidez, "numerus clausus" sistema jarraituz, enpresariaren eskuetan zehaztasun hori inolaz ere utzi gabe; eta, egindako analisiek emaitza positiboak emango balituzte, langile horri beste lanpostu bat eskaini beharko litzaioke, aldez aurretik zeuzkan lan-baldintzak mantenduz, gutxienez.

f).- Analisi genetiko horiek egiterakoan, enpresa independente batek hartu beharko luke parte, enpresariaren edo langilearen aukeraketa egin duen enpresaren eskuetan uztea

ez litzateke e
pekotasuna b
beharko lituz

Beraz, print
sariari jakinarazik

– lanpostu
baina kausa zeha
ko hartu behar di

Espainiako Arau

Hasteko, go
kriminazioaren p
tasunak debekatu
jio edo iritziagati
Beraz, pertsonen

Printzipio h
batera jasotzen d
osasun-zentro pu

Langileen
ko eskubideen ka

Gai honi bu
"de Prevención d
Publikoei zuzent
erantzuna emate

Lege honet
hitzik esaten, bai
ere langileen osa
biologikorekin la
langileen gaitasu
langileen segurta

Hori dena,
ren zaintza derri
mitatea eta duint
emaitza horiek
horren ezagupen
emango zaiola l
bada prebentzioz
daiteke, nahiz e
jakinaraztearekin

ez litzateke egokia izango eta. Honela, independentzia hori eta emaitzei buruzko isilpekotasuna bermatzeko enpresariari loturik ez dagoen talde mediko batek burutu beharko lituzke proba hauek, edota, langileak edo langile-gaiak aukeratutako batek.

Beraz, printzipio hau jarraituz gero, emaitzen sekretua bermaturik dago, eta enpresariari jakinaraziko zaizkio ondoko datu hauek bakarrik:

– lanpostu horretarako langileak edo langile-gaiak duen gaitasuna edo ezgaitasuna, baina kausa zehatzak adierazi gabe, eta neurri orokorrez gain, arrisku zehatz batzuetarako hartu behar diren prebentziozko neurriak.

Espainiako Araudia

Hasteko, gogoan eduki behar dugu 1978ko Konstituzioan ez-bereizkeria edo ez-diskriminazioaren printzipioa aldarrikatzen dela 14. Artikuluan, pertsonen artean desberdintasunak debekatuz zenbait arrazoiarengatik gertatzen direnean (jaiotza, arraza, sexu, erlijio edo iritziagatik, eta beste edozein baldintza edo egoera pertsonal edo sozialengatik). Beraz, pertsonen osasunak ezin du izan bereizkeriarako faktore bat.

Printzipio hau 1986ko Ley General de Sanidad delakoan intimitate-eskubidearekin batera jasotzen da, gaixoen eskubideen katalogoaren barruan, bere 10. Artikuluan, bai osasun-zentro publikoetan, bai pribatuetan aplikatuko delarik.

Langileen Estatutuko 4-2-c). Artikuluan antzeko eskubideak jasotzen dira, oinarrizko eskubideen kategori izenpean.

Gai honi buruzko aipagarria den azkenengo arauan, Lege 31/1995, azaroaren 8ko, "de Prevención de Riesgos Laborales" delakoan, Konstituzioaren 40-2. artikuluan Botere Publikoei zuzentzen zaien betebeharrari (lan-munduan segurtasuna eta higienea zaintzea) erantzuna ematen zaio, Europako Batasunatik emandako "Gidarauak" jarraituz.

Lege honetan, langile berriak aukeratzerakoan egin daitezkeen analisiei buruz ez da hitzik esaten, baina bai honi lotuta dauden beste gai batzuei buruz, lan-baldintzak, batez ere langileen osasunerako kaltegarri suerta daitezkeen zenbait agente fisiko, kimiko edo biologikorekin lana egiten denean eta baldintza horien berrikuspena; lana zuzentzerakoan langileen gaitasunak kontuan hartuko direla, beraien segurtasun eta osasuna bermatuz; langileen segurtasun eta osasunerako arriskuen ebaluazioa ere aipatzen da.

Hori dena, irizpide hauek jarraituz: langilearen baimena beharrezkoa dela; osasunaren zaintza derrigorrezkoa izango dela kasu batzuetan bakarrik, eta beti, pertsonaren intimitatea eta duintasuna errespetatuz; azterketen emaitzak langileei jakinaraziko zaizkiela; emaitza horiek ezin direla langilearen kalte edo bereizkeriarako erabili ; informazio horren ezagupena mediku eta osasun-agintariei mugatuta egongo dela, enpresariari ezin emango zaiola langilearen baimenik gabe, baldin eta informazio hori derrigorrezkoa ez bada prebentziozko neurriak hartzeko. Azkenengo puntu hau nahiko eztabaidagarria izan daiteke, nahiz eta prebentziorako izan, enpresariari hartu behar dituen neurri zehatzak jakinaraztearekin helburu berbera lor daitekeelako.

3.- ANALISI GENETIKOAK ETA ASEGURU KONTRATUAK

Ikertzaile batzuek azpimarratu dute zenbat eta zehatzagoa izan informazio biomedikoa, egoera txartu egin daitekeela arlo honetan. Egia da aseguru-konpainiak berehala jabetu direla beraien pazientegaien analisi genetikoek izugarrizko garrantzia izan dezaketeela pertsonak aseguru bat (bizitza, gaixotasun eta istripu aseguruak) burutzerakoan, analisi haien emaitzen arabera baldintza desberdinak (gogorragoak ala bigunagoak) ezar baititzakete edo kontratuari uko egin.

Lan zientifiko hauekin zerikusi zuzena duten sektoreetatik kanpo, aseguruena da giza genomari buruzko ikerketetan interesik handiena duena.

Ikusten denez, mozkin edo etekin ekonomikoaren printzipiopean aurkitzen diren konpainia hauen interesak pazienteenekin kontrajarriak daude, hauek beraien etorkizuna aseguratzea intimitatea galdu gabe eta diskriminatuak izan gabe nahi dute eta.

Behar bada, gaurko legediak berrikuspen sakon bat beharko luke, interes horien arteko oreka gordetzeko, irizpide hauek jarraituz,

a).- kontratuaren baldintzak ezingo dira aldatu analisiek etorkizunean gaixotasun zehatz bat harrapa daitekeela esaten badute

b).- aseguratuaren interesak bermatu egin behar dira, beti bere baimena eskatuz mota honetako analisiak egin baino lehen, eta, orokorrean, kasu guztietan proba hauek ez direla zabalduko bermatu behar da baita ere

c).- analisi horietatik jasotako informazioa inori osasun-asistentzia ukatzeko ez dela inoiz erabiliko bermatuz.

4.- IDENTIFIKAZIO GENETIKOA ETA JUSTIZIA ADMINISTRAZIOA

DNAren erabilerak justizia administrazioan, zenbait analisi egiteko eta hainbat informazio lortzeko, izugarrizko bultzada izan du urte gutxitan, arlo zibilean (aitatasuna ikertzerakoan, batez ere) eta penalean (ustezko delitugilearen aztarnak aztertzerakoan bere identifikazioa posible egin ahal izateko, edota hilotzak identifikatzeko, adibidez). Hainbeste zabaldu dira praktika hauek, espezialitate zientifiko berri bat sortu dela, Auzitegiko Genetika edo Genetika Forentsea.

Egia da analisi biologikoen erabilera ez dela gauza berria mundu judizial honetan (odol-analisiak, adibidez, aspalditik erabili izan dira), baina DNAren analisiek abantaila garbi batzuk eskaintzen dizkigute, beraien doitasuna edo zehaztasuna (horregatik "aztarna genetiko" deitzen zaio); lagin edo mostra minimo batekin behar diren analisi guztiak egin ahal izatea (polimerasaren kate-erreakzioari esker); eta, nahiz eta hondakin biologikoak oso zaharrak izan, analisiek emaitza finkoak eta oso fidagarriak ematea.

Abantailak bakarrik ez, DNAren analisi hauek arazo berriak sortu eta beste batzuk sakondu egiten dituzte. Arazo hauek hiru taldetan sailka ditzakegu:

a).- analisien fidagarritasuna eta balorazio prozesala

b).- aitatasun-prozesu batean edo delitu baten ustezko egilearen borondatea behar den edo proba hauek derrigorrezkotasuna aldarrika daiteke,

c).- analisi hauek artxibatzeko aukera, beste aztarna batzuk gordetzen diren bezala (hatz-aztanak, argazkiak...), hau da, DNA proben banku bat eraikitzeko posibilitatea.

Esan beharra dago analisi berezi hauek pertsonaren ezaugarri biologikoei buruzko informaziorik ez dutela ematen, eta, beraz, alde horretatik, intimitatearekiko arazorik ez dute planteatzen. Baina, datu hauek pertsonari buruzko beste zenbait datu babesteko onartuta dauden berme berdinak merezi dituzte. Batez ere, beste helburu desberdinentzat ez direla erabiliko edo helburu medikoekin lortutako laginak prozesu zibil edo penal baten beharrak betetzeko ez dutela balioko.

Orain, lehen aipatutako arazoei buruzko bi hitz esango ditugu:

a).- Proba hauen fidagarritasuna eta balorazioa.

Dakizuenez, DNA mota berezi bat dago, kodifikagarria dena, indibiduo bakoitzaren ezaugarri fisikoak sortzen dituzten herentzi mekanismoen bidez, proteinak ekoizten edo produzitzen dituena. Halere, gizabanako batzuetatik besteetara diferentzia gutxi ditu DNA honek, HLA (giza antigeno leukozitarioak) izan ezik. Kodifikagarritasun hori ez duen beste DNA bat ere badago, ugariagoa eta -bere funtzioak momentu honetan aztertu gabe-, ezaugarririk azpimarragarriena bere polimorfismoa duena. Honetan datza bere interes mediko-forentsea: delitu baten ustezko egileari hartutako laginaren eta delitu horren inguruan lortutakoaren artean identitatea, edo pertsona baten eta bere ustezko aitaren artekoa baieztatu ala ezeztatu daitekeela, teknika desberdinen bitartez.

Ameriketako Estatu Batuetako eta Alemaniako praktika judizialean asko kritikatu zen une batean epaileek zein erraz onartzen zituzten froga hauek eta beraien emaitzak, ukaezintzat hartuz. Kritika hauen arrazoiak desberdinak ziren, kasu batzuetan, erabili izan ziren teknikengatik, edota laginen egoeragatik, beraien fidagarritasuna eta sinesgarritasuna zalantzagarriak zirenean.

Prozesu honetan "lagin-kate"aren garbitasunaren garrantzia azpimarratu da, hau da, lagin horren jabearen identitatea eta bere kontserbazioa lortzen direnetik analisiak egiten diren arte eta auzitegira eraman arte, laginaren egoera zaintzeko garrantzia (zentzu honetan, O. Simpson-en kasuan, arazo larriak planteatu ziren, adibidez).

Horregatik, gomendio batzuk ematen dira esandako zailtasunak gainditzeko, laborategien akreditazioa; analisien kontrola bermatzen duten baldintzak, irizpide batzuk jarraituz; prozedura uniformeak erabiltzea; kontra-analisiak egin ahal izatea... Eskakizun hauek guztiak betez gero, gaur egun, DNAren analisiek fidagarritasun handia dute, eta, horregatik, Epaitegietan ondo baloratzen dira, beti epaileek erabaki behar dutelarik noraino onartzen dituzten emaitza horiek, automatikoki beraiengan sinestu gabe.

Espainian, 1992ko uztailaren 13ko Auzitegi Gorenaren Epaian froga hauek baztertu egin ziren, beraien fidagarritasun zientifikoa eztabaidagarria zelakoan, baina egoera guztiz aldatu zen 1994ko urtarrilaren 17ko Auzitegi Konstituzionalaren Epaian analisi hauek erabat onartu zirenean (aitatasuna ikertzeko prozesu bati buruz).

b).- Erasan diren oinarrizko eskubideak

DNA-analisi hauek pertsonaren osotasuna, intimitatea eta norberaren aurka ez deklaratzeko eskubideak urra ditzakete; beraz, galdera batzuei erantzun bat eman behar-

ko zaie eskubide horiek bermatzeko: posible den ala ez pertsona baten borondatearen aurka analisi hauek burutzea; prozedura honen bitartez (hau da, pertsonaren baimenik gabe) lortutako frogen balioa ; eta, aldiz, analisi horiek ukatzeak zein ondorio izango dituen pertsona horrentzat.

Galdera hauei buruz esan dezakegu Espainiako Konstituzioko 39-1. Artikuluan onartzen dela legeak aitatasuna ikertzeko aukera emango duela, eta, hildo honi jarraituz, Kode Zibileko 127-1. Artikuluak baimentzen du amatasuna eta aitatasuna ikertzen diren epaiketa edo prozesu guztietan edozein froga mota -biologikoak barne- erabili ahal izango direla. Halere, esandakoari muga batzuk ezarri behar zaizkio, Botere Judizialeko Lege Organikoak, bere 11-1. Artikuluan, oinarrizko eskubide edo askatasun publikoak zuzenki ala zeharka urratzen dituzten prozeduren bitartez lortutako frogek ez dutela efekturik sortuko dio eta.

Bestalde, lagin biologikoen lorpenak (odola, adibidez), pertsonaren osotasun fisikoaren eskubidea urratu badezake teoria mailan, behintzat, egia da, praktikan, urrapen hori minimoa dela esan dutela Epaitegiek. Auzitegi Konstituzionalak, lehen gorago aipatutako Epaian esan zuen Konstituzioaren arabera, froga hauek, Konstituzioak berak babesten dituen helburuak lortzeko erabiliko direla, baldin eta inoren osasunerako kaltegarriak ez badira.

Bestalde, gogorarazi behar dizuet horrelako froga bat egiteko baimenik ez ematea, norberaren erruduntasunaren-seinale bat izan daitekeela, eta prozesuan zehar burutu diren beste frogekin batera baloratu beharko dela.

c).- Analisi genetiko eta lagin biologikoen artxiboa.

Justizia Administrazioan, DNA-probek planteatzen dituzten arazorik larrienetariko bat, arlo penalean, zera da, analisietatik lortutako emaitzen eta analisiak egiteko erabilitako laginen artxiboa datu-banku berezietan. Horrela, etorkizunean, bai laginak, baita ere emaitza horiek erabili ahal izango dira, hatz-aztarnak gaur egun gordetzen eta erabiltzen diren modura.

Har daitekeen edozein erabakik gai honi buruz lehen aipatutako eskubide guztiak bermatu beharko lituzke, eta, noski, datu horiek beste helburu desberdinak lortzeko ez direla erabiliko ziurtatu egin beharko litzateke.

V.- APLIKAZIO GENETIKOA OSASUN ARLOAN

Aurkikuntza genetikoak Medikuntzaren arloan ari dira zabaltzen beraien aplikaziorik azkarren eta eraginkorrenak. Analisi genetikoek gero eta aukera handiagoa ematen digute zenbait patologia diagnostikatzeko, lehen sintomak edo seinaleak azaldu baino lehen. Halere, zenbait gaitz sendatzeko aukerarik oraindik ez dugunez, analisi genetiko hauek prebentzio-mailan dute beraien garrantzirik handiena.

Giza ugalketan (naturalean ala lagundutakoan), izugarrizko eragina dute diagnostiko hauek, eta askotan, erabaki sendoak hartzeko dauden zailtasunak kontuan hartuz, aholku genetikoa nagusituko da.

1.- AHOLKU GE

A).- Kontzeptua

Aholku gene
garrienetariko bat

Ikuspuntu ju
bakarrik bere helb
ematea), aldez aur
ko aholku edo infe

Gai arazotsu
komenigarria da,
definizio guztien
pazienteei edo be
raz, eta gaixotasu
mazioa.

Aholku gen
horrela erabakitze

Aholkua em
screening) prozes
zehatz batzuei esk

Prozesu hon

a).- proba diagnos
ko erabakia,
b).- proba horien
c).- lortutako info
d).- emandako inf

Ikuspegi jur
deak aztertu beha
ak, noraino inpos

1.- PROBA DIA

Ugalketari
buruzko kontsulta
dunaldian zehar).

Proba haue
kin jaioko den ha

Haurra jaio
nahiz umeek, nah
dituztenean, berai
peutikoei buruzko

Oso ondo n
fesional desberdi

1.- AHOLKU GENETIKOA

A).- Kontzeptua eta ezaugarri orokorrak

Aholku genetikoa Genetika ematen ari den prestazio edo lorpen praktikorik interesgarrienetariko bat da, Medikuntzaren arlotik ikusita, behintzat.

Ikuspuntu juridiko batetik ere, aholku genetikoak interes handiko aldeak ditu, ez bakarrik bere helburuarengatik (kontsultatzen dutenei informazioa eta beronen ebaluazioa ematea), aldez aurretik, kasu bakoitzean, egin behar diren probengatik ere, eta, emandako aholku edo informazioaren ondorioz, har daitezkeen erabakiengatik.

Gai arazotsu horiek aztertu baino lehen, aholku genetikoaren definizio bat ematea komenigarria da, batez ere, abiapuntua finkatzea beharrezkoa delako. Honela, emandako definizio guztien artean, ondoko hau hartuko dugu, gaitz bat sufritzeko arriskua duten pazienteei edo beraien senitartekoei, gaixotasun horren ondorioez, transmititzeko aukeraz, eta gaixotasun hori saihesteko edo hobetzeko dauden metodoez ematen zaien informazioa.

Aholku genetikoa gizabanakoari edo bikote bati eman dakieke, bai profesionalak horrela erabakitzen duelako, baita interesatuak horrela eskatu duelako ere.

Aholkua emateko proba batzuk burutu behar dira, noski, bahetze genetiko (genetic screening) prozesuaren bidez, haurdun dauden emakumeei, jaioberriei, edo talde etniko zehatz batzuei eskainiz.

Prozesu honetan fase desberdin batzuk bereiz ditzakegu,

a).- proba diagnostiko zehatzak egiteko egokitasunaz emandako aholkua eta horri buruzko erabakia,
b).- proba horien praktika bera,
c).- lortutako informazioaren eta beronen ebaluazioaren transmisioa (aholku bera), eta
d).- emandako informazioaren arabera hartzeko komenigarriak diren erabakiak.

Ikuspegi juridiko batetik, aipatutako gai hauetaz Zuzenbideak ematen dituen irizpideak aztertu beharko ditugu, noraino irits daitezkeen aholku genetikoa eta bere ondorioak, noraino inposa daitezkeen proba horiek eta zein kasutan...

1.- PROBA DIAGNOSTIKO ZEHATZAK EGITEKO AHOLKUA

Ugalketari lotuta dauden zenbait erabaki hartzeko garaian ematen da arazo honi buruzko kontsulta: jaioaurreko diagnostikoa (haurrak izan erabaki baino lehen edo haurdunaldian zehar).

Proba hauen helburua gaitz genetiko larri batekin, edo kromosomen aldaketa batekin jaioko den haur bat edukitzeko aukerari buruzko informazioa ematea da.

Haurra jaio eta gero eman daiteke beste diagnostiko bat ere: pertsonek (jaioberriek, nahiz umeek, nahiz helduek) herentziazko gaixotasun bat harrapatzeko aukera handiak dituztenean, beraien senitartekoen aurrekoak kontuan hartuz, ekintza prebentibo edo terapeutikoei buruzko aholkua.

Oso ondo mugatuta ez dagoen arazo bat zera da, diagnostiko hori egiterakoan profesional desberdin askok parte hartzen dutenez gero, nori egokituko zaion aholkua ema-

tea erabaki beharko da. Medikuei egokitzen zaiela garbi dago, baina ez zein espezialitatekoak izango diren (ginekologoak, pediatrak, genetistak...).

Kontsulta egiten dutenaren egoerari egokiak diren prozedura diagnostikoak baldin badaude, proba horiek eskaini behar dira, hau da, adibidez, haurdunaldiaren fasea, haurdun dagoen emakumearen adina...kontuan hartuz. Aurretiazko datuak ezagutuko balira edo gaixoak eskatuko balitu, proba horiek derrigorrez eskaini beharko zaizkio (adierazle larriak baldin badaude bestela, geroago aipatuko dugun erantzunkizuna sortuko da).

2.- INFORMAZIOA ETA BERE EBALUAZIOAREN TRANSMISIOA

Kontsulta egin dutenei informazioa ematea aholku genetikoan oso zaila izaten da. Dena den, argia izan behar du (ezjakin batentzat), eta osokoa, gaixo horiek beraien egoerari buruz ahalik eta ideiarik garbiena eduki dezaten. Horrek ez du esan nahi informazioan probabilitateak aipatzea zilegi ez denik, segurtasunezko datuak emateko aukerarik ez badago. Honela onartzen da abortuari buruz Kode Penaleko 417 bis-1-3. Artikuluan, akats edo tara fisiko edo psikikoekin fetua jaioko dela susmatzen denean.

Kasu guzti hauetan, diagnostikoaren emaitzari buruzko informazioa espezialistaren ebaluazioarekin bat dator. Beraz, aholku tekniko edo profesional bat da eta har daitezkeen neurriei buruz zabalduko da baita ere, hala beharko balitz, erabakirik egokienak aholkatuz, kontsulta egin dutenen hautaketa inolaz ere baldintzatu gabe, noski.

Beste arazo batzuk planteatzen dira kontsultatu duen bikotearen arteko pertsonak ados ez badaude informazio horren transmisioaz, batek besteari informazioa ematearen aurka azaltzen denean, kasu horietan kontuan hartu behar da zein diagnostiko-motaren aurrean gauden eta zein diren babestu behar diren interesak eta bermatu behar diren eskubideak.

3.- AHOLKU GENETIKOAREN ONDORIOZ HAR DAITEZKEEN ERABAKIAK

Egindako proben arabera, eta egoera zehatza kontuan hartuz, kontsulta egin dutenek har ditzaketen erabakiak desberdinak izango dira. Hemen, aipamen bat besterik ez dugu egingo, beti emaitza haiek arrisku larriak erakusten dituztela gogoratuz (Lege 35/1988, Azaroaren 22koa, Lagundutako Ugalketako Teknikei buruz). Ikus dezagun zein diren erabaki horiek:

- sortze-aurreko diagnostikoan: borondatezko antzutZe edo esterilizazioa, kontrazepziozko neurriak, ugalketazko teknikak, sexuaren aukeraketa zenbait gaitz prebenitzeko, terapia genikoa gametoengan...
- in vitro umekia edo enbrioia emakumearengan ezarri baino lehenagoko diagnostikoa: terapia genikoa enbrioiarengan, umekien sexuaren aukeraketa...
- haurdunaldian zehar, abortua, fetuarengan egin daitekeen terapia...
- jaio-ondorengo diagnostikoaren ondorioz: edozein tratamendu arrunt, eutanasia (jaioberriena ordenamendu juridiko guztietan debekaturik dagoela gogoratuz).

Azkenean, edozein arriskuren informazioaren aurrean, beste erabaki bat zera izan daiteke: arriskuak onartu aipatutako teknikak erabili gabe (zenbait naziotan, kasu batzuetan, aukera hau debekatuta dagoela kontuan hartuz, Txinan gertatzen den bezala. Hau da, diagnostikoaren arabera, ordenamendu juridikoak aipatutako erabaki horietako bat hartzera behartzen du.).

VI.- IKERKETA ETA ESPERIMENTAZIOA GENETIKA-ARLOAN

1.- GIZA GENOMARI BURUZKO IKERKETA

A).- IKERTZEKO ASKATASUNA. IKERKETAREN MUGAK

Edozein ikerketari buruzko eztabaidak, ikerketa genetiko eta medikoa barne, bere marko juridikoa finkatu behar du. Zalantza handirik gabe onartzen da, normalean, ikerketa zientifikoak burutzeko eskubideak babes osoa merezi duen interes bat bere barnean daramala, nahiz eta batzuetan, interes hori beste balore indibidual ala kolektiboen kontrakoa izan.

Ikerketa zientifikoa, noski, ikertzeko askatasunean oinarritzen da, honako interes hauek babestuz, ikertzaile edo zientzialariena, baina, baita aurrerapen zientifikoak lortzeko interes kolektiboak ere, gizarte osoarentzat atera daitezkeen onurengatik. Horregatik, ikerketa zientifikoaren beste ondorio bat ere babestu eta bermatu beharra da: informazioa eta ezagupenak zabaltzearena.

Ezagupenak lortzeko eskubidearen mugak, aldiz, eztabaidagarriak dira, hiru jarrera desberdin bereiz ditzakegularik:

- informazioa eta ezagupen zientifikoak eskuratzeko eskubideari inolako mugarik ez zaiela ezarri behar esaten dutenak, ezagupena bera inolaz ere ez dela kaltegarria eta, aldiz, ezagupen horren erabilera, bai, izan daitekeela argudiatuz,
- gizartearen edo zenbait pertsonaren aurka erabiltzeko ezagupen zehatzak eskuratzeko ikerketak etikaren aurka doazela diotenak, eta, horregatik, beraien debekua guztiz justifikatua egongo litzatekeela mantenduz,
- ezagupenaren eskurapenak inolako mugarik eduki behar ez lukeela diotenak, nahiz eta ondorengo aplikazioaren murrizketarekin ados egon.
- Hirugarren jarrera honekiko adostasuna ematea zentzuzkoa da, baina orokorki proposatutako mugak zabalduz: ezagupen zientifikoa eskuratzeko zenbait prozedura gogor debekatuz (zenbait kasutan, eta, aurrerago aipatuko dugun markotik at gelditzen diren pertsonak erabiliz burututako esperimentazioa).

Gehiegi ez luzatzearren, pertsonaren oinarrizko eskubideetan eta askatasun publikoetan muga horiek aurki ditzakegula esan daiteke. Gizaki bakoitza balore bat dela, eta hirugarrenentzat edota gizartearentzat lor daitezkeen etekinak kontuan hartu gabe derrigorrez errespetatu behar dena.

Marko orokor honetan kokatu behar da 1997. urtean Europako Kontseiluak onartutako "Medikuntza eta Biologiaren aplikazioekiko gizakiaren duintasuna eta Giza Eskubideak babesteko Hitzarmena. Biomedikuntza eta Giza Eskubideei buruzko Hitzarmena". Tresna juridiko garrantzitsu honi buruz aurrerago mintzatuko gara azterketa sakonagoa edo, behintzat, zehatzagoa eginez.

Espainiako 1978. urteko Konstituzioko 20-1-b). artikuluan produkzio eta sorrera zientifikoak aldarrikatzen dira, oinarrizko eskubidetzat hartuta, eta 44-2. Artikuluan zientzia, ikerketa zientifikoa eta teknikoa, interes orokorraren onerako sustatzeko betebeharra ezartzen zaie botere publikoei.

B).- GIZA GENOMARI BURZKO IKERKETEN BABES JURIDIKOA

Giza genomari buruzko ikerketek eta antzeko beste zenbait egitarauek (giza kartografia genetikoaren eratzea, adibidez) ez dute arazo juridiko berezirik sortzen. DNAren sekuentzien identifikazioa, sekuentzia hauen bilakaera eta funtzioen aurkikuntzari buruzko ikerketak ezagupen zientifikoak eskuratzeko burutzen dira, eta, printzipioz, Zuzenbideak honetaz ez luke ia ezer esan behar.

Halere, zenbait material biologiko zehatz erabiltzen denean ikerketa horiek aurrera eramateko (batez ere, giza umeki edo enbrioiak eta fetuak), arau juridiko garbiak beharrezkoak dira.

Historian zehar lortu diren beste asmakizun eta aurrerapen teknologiko eta zientifikoekin gertatu ez den bezala, giza genomari buruzko ikerketekin gertaera berri bat azpimarratu behar dugu: ikerketa hauek gizartearengan izan ditzaketen ondorioei buruzko hausnarketa eta eztabaida sakon bat ari da ematen era paralelo eta irekian, arazo honi buruz ahalik eta kontsentsurik handiena lortzeko asmoz, nazioarteko mailan batez ere.

Adibide pare bat emateko: Estatu Batuetako Osasun Institutu Nazionalak eta Energia Departamentuak sustatu dituzten ikasketa-egitarauak giza genomari buruzko ikerketak sortzen dituen arazo etiko, juridiko eta sozialak aztertzeko; eta Europako Batasunak onartutako Biomed Egitarauaren zati bat (ESLA programa), ildo berdinetik dihoana.

Estatu Espainarrean, Lege 42/1988, Abenduaren 28koak, giza material genetikoarekin teknologia genetikoa egitea baimentzen du, bi baldintzaren pean: Legearen eta Legea garatzeko emango diren arauetan finkatzendiren erregelak betetzea ; eta, baimendutako ikerketa-proiektuetan azaldu behar diren betekizunak betetzea: ikerketaren iraupena; erabiliko diren material biologikoak; lortu nahi diren helburuak; eta zentro edo zerbitzu baimenduetan egitea, material genetikoa erabiltzen den neurrian.

Teknologia genetikoaren aplikazioaren helburuak, lege horren arabera, baimena jaso ahal izateko, hauexek izango dira: helburu diagnostikoak; prebentzio, diagnosi edo terapia mailako helburu industrialak; helburu terapeutikoak; giza genomaren DNAren sekuentziak, kokapena, funtzioak eta patologiak ikertzeko helburuak.

Bestalde, Lege 35/1988, Azaroaren 22koa, Lagundutako Giza Ugalketari buruzkoak, onartzen diren ikerketen zerrenda jasotzen du, batzuk giza genomari lotuta daudenak. Debeku batzuk ere arautzen dira, giza ondare genetikoa aldatzeko zuzenduta dagoen edozein ekintza, patologia bat ez dagoenean, adibidez.

2.- IKERKETA GENETIKO KLINIKOA

Ikerketa genetiko klinikoaren asmoetako bat zera da, gaitz genetikoak zehatzago ezagutzea, prebenitzeko eta hobeto tratatzeko.

Gaixotasun genetikoak bi koordenatutan zabaltzen direla kontuan eduki behar da: horizontalki, hau da, pertsona indibidualak, baina baita ere senitartekoak eta kolektibitate batengan eragina izan dezaketenean; eta bertikalki, gaitz hauek ondorengo belaunaldietara zabaltzen direnean.

Beraz, ikerketa honen ondorioak oso baliagarriak izan beharko dute, ongarria gerta daitekeelako ikertzen den pertsonarentzat, eta baita beste hirugarren pertsonentzat ere, oraindik jaio ez direnentzat barne.

Horregatik, ikerketa honek bere helburu medikoak bete ahal izateko, ahalik eta informazio gehiena behar du, horretarako, arrisku-talde barruan dauden pertsonen laguntza guztiz beharrezkoa delarik. Laguntza hau borondatez ematen ez denean, arazo bat sortzen da: hau da, ea posible den derrigorrezko azterketak inposatzea, eta noraino errespetatu beharko liratekeen autonomia eta intimitate eskubideak.

Bestalde, informazioa lortzea baino harago joan daiteke ikerketa hau, ezagupen zientifikoen eraginkortasuna egiaztatu eta aplikatu nahi denean, hain zuzen ere. Orduan, esperimentazioaren arloan sartzen gara eta honetan, garbi dago pertsonen osasunarentzat arriskuak sor daitezkeela. Jakin badakigu, gainera, arazo hauek gaitz ez genetikoekiko esperimentazio-arloan aztertu direla, baina kasu honetan arreta berezia merezi dute, batez ere, analisi etiko eta juridiko batentzat eskaintzen dituzten berezitasunengatik. Beti, noski, esperimentazio arruntari buruz eratutako teoriaz eta irizpideez baliatuz, edo abiapuntutzat hartuz, behintzat.

Ondoren, giza eskubideekiko ikerketa eta esperimentazio genetikoek plantea ditzaketen arazorik larrienak aztertuko ditugu.

A).- BORONDATEZKO ALA DERRIGORREZKO PARTE-HARTZEA IKERKETA GENETIKO KLINIKOETAN

Betidanik borondatearen abiapuntutik planteatu da pertsona heldu eta gai batek ikerketa medikoetan parte hartzea, bere baimena libreki ematea eskatuz, arrisku guztiei buruzko informazioa jaso eta gero.

Botika eta sendagaien ondorioak ezagutzeko egiten diren saiakuntza klinikoak dira adibiderik ezagunena

Bide horretatik doaz zenbait nazioarteko hitzarmen: 1966ean Nazio Batuen Asanblada Orokorrak onartutako Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunak, bere 7. artikuluan norberaren baimenik gabe inori esperimentu zientifiko edo medikorik ezartzea debekatzen du, eta antzeko gauza zioen 1964an Munduko Asanblada Medikoak onartutako Helsinki-ko Deklarazioak, eta baita 1975, 1983 eta 1989. urteetan horri egindako berrikuspenetan ere.

Ikerketa genetikoan zuzenean ikertzen den pertsonak, printzipioz, ez ditu aprobetxatuko ateratako emaitzak, beste hirugarren pertsonen onerako egiten baita (oraindik sortu edota jaio ez direnak barne, gorago esan dugun bezala).

Batzuek, pentsaera utilitarista bati jarraituz, ikerketa hauek gizartearentzat eduki ditzaketen onurak kontuan hartuz, derrigorrezko ikerketak legitimitate etikoarekin bat datozela erabakiko lukete. Beste batzuek, aldiz, indibiduoa goratuz, alderantsizko ondorioa aterako lukete, hau da, pertsonaren baimena lortu beharko dela horrelako ikerketa batean inoren parte hartzea onartzeko.

Nazioarteko mailan aipatutakoaren arabera, eta gorago aipatutako Europako Kontseiluak 1997an onartutako Hitzarmenaren arabera, momentu honetan bigarren ikuspuntu hau dela irabazlea eztabaida honetan esan dezakegu.

Halere, gizarte osoaren osasuna (eta, batez ere, senitartekoena) bermatzeko, eta pertsona guztiengan nolabaiteko kontzientzia berri bat sorrarazteko, zenbait tresna erabili beharko lirateke: botere publikoek ezagupen zientifikoaren zirkulazioa sustatu eta bermatu beharko lukete, zenbait gaitzi buruzko aurrerapenak iritzi publikoari jakinaraziz, hiri-

tarren erantzukizuna eta elkartasuna areagotuz, ikerketa-egitarau horietan ahalik eta parte hartze handiena lortu ahal izateko, gizabanakoen askatasunaren printzipioa mantenduz.

Gai honek oso eztabaida interesgarria sortzen du, hemen beronen aipamena besterik egingo ez dugularik: nola bermatu giza eskubideak giza betebeharrak aitortuz. Materia hau benetan zakona da, baina derrigorrez aztertu behar dena, zenbait arazo konpontzeko edo, behintzat, hobeto ulertu ahal izateko.

B).- IKERKETA GENETIKO MEDIKOAREN MUGAK

Gorago modu orokorrean aipatutakoaz gain, zenbait puntu zehatz aztertu beharko genuke momentu honetan: umeak tartean daudenean, enbrioi edo umekiekin eta zigotoekin horrelako ikerketak burutzeko.

Umeen kasuan, bi muga nagusi aurkituko ditugu, alde batetik, ikerketaren ondorioak eta emaitzak umearen onerako izatea, edota, gehienez, arriskuak minimoak izatea; eta, bestalde, baimena eman behar duenaren identifikazioa (umearen ordezkari legalak, hau da, gurasoak edo tutoreak), eta, ea umearen borondatea edo nahia, gaitasun nahikoa daukanean, kontuan hartu behar den.

Arazo larriagoak planteatzen dira zigotoengan egin daitezkeen ikerketetan, etorkizunean jaio ahal izango diren gizakiengan eragin handia eduki dezaketelako (manipulatu den zigotoa emakume batengan ezartzen bada, alegia).Orain arte ikerketa honek dituen zailtasunek bere kontrolaren iritzia indartzen dute, eta, beraz, oso aukera mugatuak eskainiko dizkigu bide honek.

Dena den, manipulazio genetikoa, nahiz eta helburu medikuok izan, hausnarketa berri baten beharrean dago: zein ekintza baimendu, zein ikerketa mugatu eta zein debekatu erabat; kontuan hartuz zigotoen manipulazioak eragin handia izango duela jaio daitekeen pertsonarengan. Horregatik, legelari batzuk "aldatu gabeko ondare genetikoa" jasotzeko eskubide berri bati buruz mintzatzen hasiak dira dagoeneko, abiapuntu gisa, behintzat.

Antzeko arazoak sortzen dira in vitro umeki batengan burutu daitezkeen ikerketa genetiko medikoei buruz hitz egiterakoan.

3.- GIZA FETU ETA UMEKI EDO ENBRIOIEKIN EGINDAKO ESPERIMENTAZIO GENETIKOA

A).- UMEKI ETA FETUEN BABES JURIDIKOA

Umeki eta fetuekiko ikerketak eta esperimentazioak planteatzen dituzten arazo etiko eta juridikoak aztertzerakoan, haurren hilkortasuna jaisteko izan dituzten eraginak kontuan hartu behar dira (RH eta arnas aparatuari lotuta dauden zenbait gaitz tratatzeko izan den arrakasta, alegia). Halere, nolabaiteko kontrolaren beharra derrigorrezkoa dela azpimarratu behar da, manipulazioa eta arriskuak ekiditeko haurdunaldian zehar, umea jaio eta gero tarak edo akatsak azal ez daitezen, edo nahigabeko abortua gerta ez dadin.

Abortu legalak egiten diren zenbait kasutan kirurgikoki bizirik ateratzen diren fetuengan egin daitezkeen esperimentazioak baloratu egin behar dira, oso arazotsu eta

eztabaidagarri
ak, alde batetil

Orain ar
zen, beraien b
baina oraindik
ropenetatik at
zituen erantzu
tzegoen, hau d

Hamarka
balioa galduz

– nascit
ko, fe
jaio a
ten ar
fetuek

– giza b
hobet
aipaga
edo fa

– giza
batez
sortze
batzul

– umek
garra
bizitz
baditu
zelule
ten du

Umeki
arte nasciturı
azpimarratzer
arlo Zibilean,
adibidez. Hor
tuz aldatzeko
osoa eskatzen
goa eta sakor
izan behar ez

Ikuspun
eta fetuaren e
tzunak emane

eztabaidagarriak dira eta. Antzekoa gertatzen da umekiekiko, non aurrerapen zientifikoak, alde batetik, eta umeki eta fetu horien babesa orekatu behar diren.

Orain arte, izaki horiei ematen zitzaien babes bakarra Kode Penalaren bidez egiten zen, beraien bizitzen aurkako ekintzak delitutzat hartuz (abortua). Nasciturus-i (sortua, baina oraindik jaio ez den izakia) Zuzenbide Pribatuan ematen zitzaizkion eskubide-itxaropenetatik at, ez zegoen babesteko beste biderik. Dena den, Zuzenbideak eskaintzen zituen erantzun horiek nahikoak ziren, izaki horien aurkako beste eraso-aukerarik ez baitzegoen, hau da, umekiaren ala fetuaren heriotza gertatzen zen kasu guztietan.

Hamarkada batzuetatik hona, garbi dago aipatutako tresna juridiko horiek beraien balioa galduz joan direla, arrazoi desberdinengatik:

- nasciturus-engan burutu daitezkeen inbasio edo eraso-era berriak asmatu direlako, fetuarentzat kaltegarriak suertatu daitezkeen zenbait agente ezagutu direnean; jaio aurretik zenbait diagnosi egiteko laginak lortzeko behar diren teknikek dituzten arriskuak (amniozentesiarekin nolabait gertatzen den modura), eta umeki eta fetuekiko terapiek dituzten arriskuak.

- giza bizitzaren hasierako prozesu biologikoan zehar gertatzen diren fenomenoak hobeto ezagutzen direlako eta hobeto baloratzeko aukera ematen digutelako (oso aipagarria da amaren uteroan ezarri baino lehen zigoto eta enbrioien lehen aldi edo faseei buruz gaur egun dagoen informazio ugaria).

- giza bizitzaren hasierako prozesu biologikoan esku hartzeko dauden aukerak, batez ere, lagundutako ugalketa-tekniken bitartez, teknika hauek umekiak in vitro sortzen dituztelako, bai emakume batengan ezartzeko asmoz, baita beste helburu batzuk lortzeko ere (gordetzeko, beste haurdunaldi bat burutzeko, adibidez).

- umeki eta fetuek beraiekiko zerikuksirik ez duten helburuak lortzeko duten garrantzia, hau da, umekiekin egiten diren esperimentazioak eta ikerketak giza bizitzari buruzko oso informazio zabala eskaintzen digute, eta beste ondorioak ere badituzte (jaio direnengan transplantatzeko ehunak lortzeko enbrioi eta fetuen zelulek ematen dituzten aukerak; eta kosmetika eta botiken industri mailan ematen duten aberastasuna, adibidez).

Umeki eta fetuekin egiten den esperimentazioari buruz egindako aipamenek orain arte nasciturus babesteko erabili diren tresna juridikoak gaur egun ez-nahikoak direla azpimarratzen dute. Ordenamendu juridikoaren arlo desberdinetan sortu dira arazo hauek: arlo Zibilean, giza nortasuna zehazteko erabili izan diren ohiko formulak zalantzan jarriz, adibidez. Horregatik, azken urteetan nasciturus eta in vitro umekiak babesteko ikuspuntuz aldatzeko behar nabarmena izan da. Ikuspuntu berri honek nasciturus-arentzat babes osoa eskatzen du, hutsune legalak ebitatzeko. Hots, nasciturus-ari babes juridiko zabalagoa eta sakonagoa bermatu egin behar zaio, baina horrek ez du esan nahi salbuespenik izan behar ez duenik, jaioekiko onartzen dira eta.

Ikuspuntu orokor eta babesleago honek eskatzen duen erantzun araugileak "umeki eta fetuaren estatutu juridiko" bat izan beharko luke, ondoren aipatzen diren galderei erantzunak emanez:

a).- nasciturus-a, eskubide subjektiboen jabea?

Nasciturus pertsonatzat hartzetik dator irizpide hau, umekia eta fetua noiztik diren pertsona moralak, eta, beraz, pertsona juridikoak erabaki eta gero, eskubide subjektiboen jabe izateko pertsona behar baita.

Dakigunez, lehen mailako eztabaida filosofikoa dugu hau, denboran aspalditik datorkiguna eta oraindik irauten duena, ideologikoki oso baldintzaturik dagoena, eta, horrexegatik, abiapuntutzat hartu diren ikuspuntu desberdin guztien arabera ebatzi behar dena, nahiz eta emaitzekiko erabateko adostasunik ez lortu.

Espainia mailan, 1985ko apirilaren 11an Auzitegi Konstituzionalak emandako Epaian (53/1985 Epaia) kontuan hartu behar dugu: Epai honetan, nahiz eta garbi esan Konstituzioko 15. Artikuluan aldarrikatzen den bizitza-eskubidea nasciturus-ari ematen zaiola ere bai, ez dio honi inolako eskubide subjektiborik aitortzen.

Beraz, nasciturus-ari ematen zaion kalifikazio juridikoak (pertsona izan ala ez) zerikusi gutxi du bera babesteko aukeratzen den tresneriekin eta honen irismenarekin.

b).- biziaren hasiera zehaztea: babesa eskaintzeko zein da une erabakigarria eta ukaezina?

Jarrera batek, oso oinarri sinple baina sendoa hartzen du abiapuntutzat: giza biziak beronen hasiera-hasieratik jaso behar du babesa, salbuespenik onartu gabe. Abiapuntu hau zuzena da, datu biologiko batean oinarritzen delako, nahiz eta datu hori benetan eztabaidagarria izan (giza biziaren hasierari buruzko ezagupen biologikoek oraindik puntu ilunak baitituzte). Halere, jarrera honen emaitzak ez dira izan guztiz egokiak, alde batetik batzuetan ezagupen biologikoak alderdikeriaz erabili direlako (giza biziaren hasiera aurreratzen ala atzeratzen) nasciturus-a babesteko hartutako jarreraren arabera, batez ere abortuari buruzko eztabaida ideologikoaren inguruan; eta bestalde, beste batzuetan, biziaren hasiera eta giza biziaren hasiera bereizten zenbait saio egin direlako, gaia argitzeko asmoz. Dena den, oinarri honetaz ere adostasunik ez dago, batez ere irizpide biologikoak eta ideologikoak nahastu egiten direlako.

c).- babesa behar duen ondasun juridikorik ba al dago?

Zuzenbideak, arlo Penalean gehienbat, babes juridikoa merezi duen ondasun bat identifikatu behar du, eta ondoren, Zuzenbideak berak zehaztu behar du noraino eta zein tresnen bidez emango zaion babes hori. Eztabaida planteatzeko irizpide honek garbiago uzten du erabakitzeko prozedura, baloreak, beste jarreren kasuetan ezkutuan mantentzen baziren ere, hemen argi eta garbi azaltzen zaizkigu, benetan eztabaida aberats bat sortuz, eta jarrera ideologiko guztiak batuz.

Honela, interesen balorazioaren irizpide hau jarraitzeak emango digu hainbat eta hainbat arazori konponbide bat emateko bidea (fetuaren bizia eta haurdun dagoen emakumearen beste interesen arteko gatazka ebazteko, abortuari buruzko eztabaida barruan, adibidez).

d).- egoera biologiko desberdinak babesteko irizpideak

Interesen balorazioa lehen irizpide orokortzat hartzea komenigarria dela garbi uzten saiatu naiz, baina horrekin pauso bat besterik ez dugula egiten ere esan behar da. Beraz,

bigarren pauso
dira. Horretara

Giza bizi
mena duen biz
te aukera hori:
zigotoak ez du
adibide sinple

Horrela,
jarrai dezakeen
erabakigarria i

Bigarren
(utero barruan
ezarri arte).

Hirugarre
umekia in uter

Azkenen
mereziko ez du

A.-1.- IN VIT

In utero
ezaguna izanik
dugun panoran

Umekia
tu beharko lira
tzak eta eragin

Bestalde,
baldintza edo
interesak (nort
tsitatea) babest
berdinak eta u
lan hartutako e
rrik

Europako
luzatu zien giz
tzeko gonbida
Asanbladak, 1
giza duintasun

Aurrerag
diko handiagoa
rimentuak buru

Espainiar
eta in vitro um

bigarren pauso modura behar den babesa emateko erabil daitezkeen tresnak zehaztu behar dira. Horretarako, giza biziaren aldi desberdinak bereiztea ezinbestekoa da.

Giza bizitza sorreraren momentuan hasten dela onartuz, gizaki bat sortzeko ahalmena duen bizitzari behar den garrantzia aitortu egin behar zaio, bizitza guztiek ez baitute aukera hori: espermatozoide bat eta obulu bat in vitro elkartzen direnean sortzen den zigotoak ez du, beraz, garatzeko aukerarik, emakume batengan ezartzen ez den bitartean, adibide sinple bat jartzeagatik.

Horrela, babesik handiena merezi duen momentua fetuak uterotik kanpo bizitzen jarrai dezakeen hura da. Bestalde, emakume batengan umekia sartzen den momentuak oso erabakigarria izan beharko luke baita ere.

Bigarren maila batean, bizigaia ala bideragarria den umekia jarri beharko genuke (utero barruan dagoena habiatu edo anidatu arte, edo in vitro umekia emakume batengan ezarri arte).

Hirugarren mailan, bizigai ez den umekia daukagu, ondoko sailkapen honi jarraituz: umekia in utero, umekia edo fetua ex utero, eta umeki eta zigotoa in vitro.

Azkenengo mailan, umeki eta fetu hilak aurkituko dira, hauek babes juridikorik mereziko ez dutelarik.

A.-1.- IN VITRO ETA IN UTERO UMEKIAREN BABESA

In utero umekiaren izatea lehenengo momentuetan ezezaguna zaigunez gero, eta, ezaguna izanik ere, berarengan esku hartzea ezinezkoa izango litzaigukeenez, aipatuko dugun panorama juridikoa in vitro umekiari buruz izango da.

Umekia bizigai bada, izaki berriaren onerako egin daitezkeen ekintza guztiak onartu beharko lirateke, salbuespen batzuk izan ezik, terapia genikoa batez ere, beronen emaitzak eta eraginak giza espeziearengan oraindik ezezagunak direlako.

Bestalde, umekiari babesa emateko, gizaki berriaren nortasuna eta izaera biologikoa baldintza edo alda ditzaketen ekintza guztiak debekatu egiten dira, gizaki berri horren interesak (nortasuna eta errepikaezintasuna) eta giza espeziearenak (osotasuna eta dibertsitatea) babesteko beharra ikusten delako. Materia honi buruz hartutako jarrerak oso desberdinak eta ugariak dira, eta arrazoi horiengatik denak ez ditugu aipatuko, Europa mailan hartutako erabakirik nagusienak eta Espainiako araudia laburki aztertuko ditugu bakarrik

Europako Kontseiluak, 1986ko Aholku batean, Europako Batasuneko Estatu guztiei luzatu zien giza umekien eta fetuen erabilera industrialen helburu terapeutikoetara mugatzeko gonbidapena, eta zenbait manipulazio debekatzekoa. Geroago, Erakunde horren Asanbladak, 1989an, beste Aholku bat onartu zuen, 1986koa garatuz, umeki eta fetuak giza duintasuna errespetatuz tratatu behar direla adierazten zuelarik.

Aurrerago aztertuko dugun 1997ko Europako Kontseiluko Hitzarmenak eragin juridiko handiagoa izan dezake gai guzti hauetan, giza genoma eta in vitro umekiekin esperimentuak burutzeko zenbait arau ematen duelako.

Espainian, 1988ko Giza Ugalketa Lagundutako Teknikei buruzko Legeak pre-umeki eta in vitro umekiekin esperimentatzeko zenbait muga ezartzen du. Horrela, giza obuluen

ernalkuntza ugaltzeko helburutik at debekatzen da. Beraz, ikerketarako zuzenki erabiliko diren in vitro umekiak sortzea onartezinatzat jotzen da. Halere, nahiz eta giza ugaltze helburuarekin sortu, normalean, ernaldia lortzeko behar diren baino umeki gehiago ernaltzen direnez gero, arazoa berdina da. Horregatik, teknika hauek praktikatzen dituzten osasunzentroek kontu handiz ibili beharko lukete eta guztiz beharrezkoak diren obuluak ernaldu beharko lituzkete bakarrik, legeak dioenaren arabera.

Umekiarekin esperimentatzeko baldintza batzuk ere eskatzen dira, umekiaren "gurasoen" baimena; obuluaren ernalkuntza baino hamalau egun beranduago in vitro garatua ez izatea; eta baimendutako zentroetan egitea esperimentazio hori.

Bizigai diren aurre-umekiekin ikerketa eta esperimentazioa aurrera eramateko helburu terapeutikoetarako onartzen da bakarrik, eta bizigai ez direnekin, beste ikerketetarako zabaltzen da legeak ematen duen baimena.

A.-2.- EZARRI ETA GEROKO UMEKIEN ETA IN UTERO EDO EX UTERO FETUEN BABESA.

Orokorrean, umeki eta fetu biziengan ikerketa eta esperimentazio guztiak ukatu egiten dira, amaren uteroan beraien biziaren garapenak jarraitzen duen bitartean, beraien onerako zuzendutako ekintzak bakarik onartu daitezkeela adieraziz. Amaren sabeletik fetua kanporatua, baina oraindik bizigai denean, irizpide berdinak finkaturik daude.

Beraz, izaki horiengan onartzen diren ekintza bakarrak diagnosirakoak eta terapiarakoak dira, baina beti, ekintza horien helburuen eta arriskuen arteko proportzionaltasun printzipioa gordez.

Espainia mailan, 1988ko abenduaren 28ko Legeak (giza umekien eta fetuen, edo beraien zelula, ehun edo organoaren emate eta erabilerari buruzkoa), umekien merkataritzako trafikoa debekatzen du eta haien ematea onartzen, baldin eta bizirik edo bizigai ez badira, eta, kasu guztietan, gurasoen baimena eskatuz, beharra den informazioa jaso eta gero emanda. Kasu horietan, manipulazio klinikoa onartzen da, nahiz helburu diagnostikoetarako, nahiz helburu terapeutiko edo farmakologikoetarako, nahiz esperimentazio edo ikerketa helburuetarako (teknologia eta ingeniaritza genetikoa barne).

VII.- ZUZENBIDEAREN ERANTZUNA

1.- SARRERA ETA OINARRIAK

Genetikaren arlo honetan beharrezkoa den kontrola arautzerakoan bide desberdinak jarrai daitezke, nahiz eta, beharbada, denak osagarriak izan.

Lehen maila batean, komunitate ikertzailearen barneko autokontrola aurki dezakegu. Berau etikari lotzen zaio eta oso aipatua izaten da, sortzen diren gatazkak konpontzeko asmoz, eta kanpoko kontrolak saihesteko. Halere, kontrol hau, lehen mailakoa denez gero, interesgarria izan daiteke, eta horretan Bioetika zientzia berriak badu zereginik eta zeresanik.

Bigarren maila batean, botere publikoen parte-hartzea dugu osasun-munduan, arrazoi hauengatik. Estatu Sozialaren ondorioz, hiritarren osasuna diseinu politiko guztien oinarri bat bihurtu da, horretarako bitarteko ugari erabiltzen direlarik; osasuna segurta-

tzeko osasun-prestazioen kalitatea bermatu eta arriskuak murriztu egin behar direlako, batez ere, garapen bioteknologikoarekiko; eta botere publikoen parte-hartze hori derrigorrezkoa delako indibiduoen oinarrizko eskubideak urra ditzaketen zenbait ekintzekiko.

Gorago aipatu ditugun Legeak (1988ko azaroaren 22ko Giza Ugalketa Lagundutako Teknikei buruzkoa, eta 1988ko abenduaren 28ko Giza Umekien eta Fetuen edo beraien zelula, ehun edo organoen emate eta erabilerari buruzkoa, eta 1986ko apirilaren 25eko Osasunaren Lege Orokorra) eta Konstituzioko 43. Artikulua (osasunaren babesa bermatzen duena), izan dira, genetikaren arloan, eragin handiena ekarri dutenak, lehen ikus ahal izan dugun bezala.

Azkenean, denok dakigu, nahiz eta oraintxe aipatutako kontrolak indarrean egon, kalteak gerta daitezkeela. Kasu horietarako, Zuzenbideak ohiko erreakzioak zabaltzen ditu: kaltearen ordainketa, Zuzenbide Pribatuaren arloan, Administraziok duen erantzukizuna kanpo utzita; eta, errepresioa, Zuzenbide Penalaren arloan.

2.- ERANTZUKIZUN ZIBILA

Arlo honetan gertatutako kalteak konpontzeko baldintza batzuk behar dira, kaltea ekonomikoki neurtu ahal izatea, subjektuen errua, eta bi baldintza horien arteko kausalitate lotura.

Arazo hau jaioaurreko diagnosiarekin lotzen da gehienetan, eta diagnosi hori egiterakoan gerta daitezkeen hutsegiteekin (negatibo faltsuen kasuak, non fetuak dituen tarak edo akatsak ez diren detektatzen; eta positibo faltsuen kasuak, non, nahiz eta tararik ez egon, detektatuak izaten diren). Hutsegite horien ondorioak asmatzea erraza zaigu: umea tara batekin jaiotzen da; ala akatsik gabeko umeki bat, beharbada, abortatu egin da.

Espainiako Zuzenbidean, sortzen den erantzukizun hori bi adar desberdinetik bidera daiteke: Kode Zibileko 1.101. artikuluan arautzen den kontratuko erantzukizuna; eta Lege horren 1.902. artikuluko kontratutik kanpoko erantzukizuna.

3.- ARAU-HAUSTE ETA ZEHAPEN ADMINISTRATIBOAK

Giza genomari buruzko zenbait ekintza ez-bidezkotzat jotzen dira, Zuzenbide Administratibo mailan, hasiera batean, eta Zuzenbide Penal barruan jarrerarik larrienak zigortuz. Arazo bat sortzen da, beraz, arau-hausteak zigortzerakoan: zein portaerek jaso behar duten zigor administratiboa, eta zeinek penala. Botere Legegileak du erabaki bat hartzeko eskuduntza, kasuz kasu arauak onartzerakoan, eta, normalean, gero aztertuko ditugun zenbait printzipio edo irizpideren arabera.

Lehen aipatutako Lege 35/1988, azaroaren 322koak arau-hauste administratiboen zerrenda jasotzen du, arau-hauste larrien eta oso larrien artean bereiztuz (azkenengo hauen artean giza umeki biziekiko ekintzak, giza klonazioa...). Bide beretik doa Lege 42/1988, abenduaren 28koa, arau-hauste larrien eta oso larrien zerrendak emanez.

Lege hauek onartu zerrenean, zenbait arau-hauste oso larriak Kode Penalean zigortu beharrean, arlo administratiboan mantentzea erabaki zenean, oso gogor kritikatu zen jarrera hori. Gero, hutsegite hori konpondu da, 1995eko Kode Penal berriak, horietako zenbait jarrerari erantzun zigorlea ematea erabakitzerakoan, aurrerago ikusiko dugunez.

4.- ERANTZUKIZUN PENALA

a).- Sarrera

Zuzenbide Penalak baditu ohiko oinarrizko printzipio edo irizpide batzuk, gai berriak arautzerakoan, derrigorrez errespetatu behar direnak, erantzun zigorlea eman ahal izateko: Zuzenbide Penalaren betekizuna kontuan hartzea (hau da, gizartearen aurkako jarrerarik larriena zigortzea), eta parte-hartze minimo eta "·ultima ratio" printzipioak.

Zuzenbide Penala, arau etiko-sozialen urratze larriak eta gizabanakoaren eta komunitatearen interesak, baloreak eta ondasunak larriki kaltetzen dituzten jarrerak zigortu beharrean aurkitzen da, beste tresna juridikoak (Zuzenbide Zibila eta Zuzenbide Administratiboa) nahikoak ez direnean .

2.- ESPAINIAKO 1995KO KODE PENALA

1995eko Kode Penalean "Manipulazio genetikoari buruzko delituak" izenburupean, zenbait ekintza desberdin zigortzen dira, delitutzat hartuz. Halere, argitu behar da zigortzen diren ekintza guztiak manipulazio genetiko kontzeptu barruan sartzea oso zaila dela, gero ikusiko dugunaren arabera.

a). Manipulazio genetikoak.

159. artikuluan zigortzen den oinarrizko ekintza zera da: "genotipoa aldatzen duten giza geneak manipulatzea". Beraz, printzipioz, edozein giza gene manipulatzea delitutzat jotzen da, 1988ko aipatutako bi Legeak gaindituz, haiek umekiak eta fetuak bakarrik babesten baitituzte. Horregatik, bai Kode Penalaren berrikuntza baten bidez, bai jurisprudentziak emango duen interpretazioaren bidez, "giza fetuen ala umekien geneak manipulatzea, haurdunaldi batean zehar" zigortua izan beharko luke

b). Arraza hautesteko prozedurak eta klonazioa.

161. artikuluan zigortzen dira ekintza hauek, prebentzioko helburu bat betez, batez ere, egia da zenbait ikerketa-mota mugatzeko eragin handigoa izango duela, ekintza zehatzak zigortzeko baino, momentuz behintzat.

c). Ugaltzeko helbururik gabeko umekien sorrera

161. artikuluan ere zigortzen da enbrioi edo umekiak sortzea ikerketa edo esperimentazio asmoz, lehenago aipatu ditugun irizpide batzuk jarraituz, eta, noski, umekia bera babesteko asmoz.

d). Arma biologikoen produkzioa

160. artikuluan arma biologikoen produkziorako injeniaritza genetikoa erabiltzea zigortzen da, giza espeziea babesteko helburuarekin.

e). Giza ugalketa lagundutako ez baimendua.

162. artikuluan emakumearen baimenik gabeko giza ugaltzea, bere haurdunaldia erabakitzeko emakumearen askatasuna babesteko asmoz.

VIII.- GIZA

1997ko a
bederatzigarre
Unibertsala on
eta beraien e
dituztela gogo
tzat eta askata
genetikoetan o

Deklaraz
tien batasun-g
aniztasuna giz

1.- GIZA ESK

a).- Giza geno
tzeko, pertson
eta etekinei bu

Pertsona
razten duten n
emandakoa...),

b).- Azterketa
erabakitzeko e

c).- Giza duint
ezaugarri gene

d).- Ikerketa g
bakoitzean leg

e).- Norberaren
dain bat ala be

f).- Oinarrizko
kotasun printz

2.-. GIZA GE

Ikerketa
duintasuna (na
gainetik daude
Deklarazioak.

Horrela,
dira eta, nahiz
la azpimarratz

Deklaraz
baita ere, ikerk
nean, izan ditz

VIII.- GIZA GENOMARI BURUZKO UNESCO-REN DEKLARAZIOA

1997ko azaroaren 11an, Paris-en, UNESCO-ren Konferentzia Orokorraren hogeita-bederatzigarren bilkurak Giza Genoma eta Giza Eskubideei buruzko Deklarazio Unibertsala onartu zuen. Deklarazio horren Hitzaurrean, giza genomari buruzko ikerketek eta beraien emaitzen aplikazioek gizartearen aurrerapenerako bide zabalak irekitzen dituztela gogora ekarri eta gero, ikerketa horiek giza eskubideentzat, giza duintasunarentzat eta askatasunarentzat arriskutsuak izan daitezkeela kontuan hartzen da, eta ezaugarri genetikoetan oinarritutako edozein bereizkeri mota debekatuta dagoela azpimarratzen da.

Deklarazio horretan, UNESCOk zera dio: giza genoma giza familiako partaide guztien batasun-gunea dela eta aldi berean, beraiei dagozkien duintasuna eta dibertsitate edo aniztasuna gizateriaren herentzia direla.

1.- GIZA ESKUBIDEAK BABESTEKO DEKLARAZIOAK honako arauak ematen ditu:

a).- Giza genoma indibidualari buruzko ikerketak, tratamenduak edota diagnosiak burutzeko, pertsona interesatuaren baimena guztiz beharrezkoa da, gerta daitezkeen arriskuei eta etekinei buruzko aurreko aholkua jaso eta gero.

Pertsona horrek baimena emateko gaitasunik ez balu, nazio bakoitzeko legeek adierazten duten moduan lortu beharko litzateke baimen hori (ordezkari legalek edo epaileek emandakoa...), beti pertsona horren interes nagusiak defendatuz.

b).- Azterketa genetiko horien emaitzei buruzko informazioa jasotzeko ala ez jasotzeko erabakitzeko eskubidea dute gizaki guztiek.

c).- Giza duintasuna, oinarrizko eskubideak eta askatasunak ez urratuak izan ez daitezen, ezaugarri genetikoengatik bereizkeriarik inork ez du jasango.

d).- Ikerketa genetiko baten emaitzak isilpekotasun printzipiopean egongo dira, nazio bakoitzean legeek zehazten duten moduan.

e).- Norberaren genomari buruzko azterketa baten ondorioz kalterik jasanez gero, kalteordain bat ala bestelako konponketa bat jasotzeko eskubidea aitortzen zaie pertsona guztiei.

f).- Oinarrizko askatasunak eta giza eskubideak babesteko asmoz, baimen libre eta isilpekotasun printzipioek ez dute mugarik edukiko, nazioarteko arauen arabera ez bada.

2.-. GIZA GENOMARI BURUZKO IKERKETA

Ikerketa orokor hauei buruz ere, giza eskubideak, oinarrizko askatasunak eta giza duintasuna (nahiz gizabanakoarena, nahiz taldeena, nahiz herriena) edozein ikerketaren gainetik daudela, biologia, genetika eta medikuntza arloan, batez ere, gogorarazten digu Deklarazioak.

Horrela, gizakien klonazioa eta giza duintasunaren aurkako praktikak debekatzen dira eta, nahiz eta ikertzeko askatasuna aldarrikatu, gizateria osoaren onerako izango direla azpimarratzen da, batez ere, denon osasuna zaintzeko eta hobetzeko helburuarekin.

Deklarazioak, zientzia-jardueran ari ahal izateko, baldintza batzuk ezartzen ditu baita ere, ikerketak zintzotasun intelektualaz egitea, gehienbat giza genomari buruz direnean, izan ditzaketen ondorio sozial eta etikoengatik; Deklarazioan aldarrikatzen diren

askatasun eta eskubideak ikerketa horietan errespeta daitezen beharrezkoak diren neurriak hartzeko agintzen die Estatuei; behar diren maila guztietan batzorde independente, diziplina askotakoak eta etikoak eratzea gomendatzen zaie baita ere Estatuei.

Nazioarteko Erakunde batetik sortutako Deklarazio honek, nazioarteko mailan derrigorrezkoa den elkartasunari eta kooperazioari buruz hitz batzuk ere baditu: ezaugarri genetiko bereziak dituzten gizabanakoekiko, senitartekoekiko, eta populazio-taldeekiko elkartasuna sustatzeko betebeharra ezartzen zaie Estatuei; eta, hirugarren munduko herriei laguntza emateko beharra ere aipatzen da, batez ere, giza genomari buruzko aurrerapenak herri horietara iritsi daitezen .

IX.- EUROPAKO KONTSEILUKO GIZA ESKUBIDEAK ETA GIZAKIAREN DUINTASUNA BABESTEKO HITZARMENA, BIOLOGIAREN ETA MEDIKUNTZAREN APLIKAZIOEKIKO

BIOMEDIKUNTZA ETA GIZA ESKUBIDEEI BURUZKO HITZARMENA

1997ko apirilaren 4an Oviedo-n onartu zen Hitzarmen hau, giza eskubideak eta gizakien duintasuna biomedikuntza arloan babesteko eta teknologia berrien eragin sozialak, juridikoak, eta etikoak aztertzeko asmoz.

Arau horretan, hiru babes-maila bereizten dira,

a).- Gizabanakoa edo indibiduala: hiritar bakoitzaren, bere gorputzaren eta bere osasunaren arloan erabakitzeko ahalmena errespetatuz;

b).- Soziala, organoen eta ehunen ateratzeak eta transplanteak burutzeko bete behar diren baldintzak finkatuz, emaileak gizaki bizidunak direnean;

c).- Etorkizuneko belaunaldiena, giza genomaren aldaketa ondorengoengan aldakuntzarik sortzeko helburua ez duenean bakarrik onar daitekeela zehaztuz.

Bestalde, bere Hitzaurrean, interes indibidualari lehentasun osoa aitortzen zaio, edozein interesen arteko gatazka lehentasun hori errespetatuz ebatziko edo konponduko delarik.

Azkenean, teknika, gizakiaren garapenerako tresna bihurtuko dela itxaropena aitortuz, eta babestu nahi diren gizaki guztien eskubideak bermatuz, Hitzarmenak arau zehatzak ere ematen ditu,

a).- Interesatuaren baimenari buruz luzaten da artikulu batzuetan zehar, baimen libre bat eskatuz, informazio egokia jaso eta gero (ebakuntzaren izaeraz, helburuez eta beronen arrisku eta ondorioez); eta emandako baimena edozein momentutan kentzeko eskubidea arautuz.

Baimena emateko gaitasunik ez dutenei buruz, ordezkari legalena edo eskuduntza duten agintariena lortu beharko dela dio, ikerketa pertsona horren onurarako izatea eskatzen delarik.

b).- Giza genomari buruzko arauak ere ematen dira: pertsona bakoitzaren ondare genetikoarengatik edozein bereizkeri mota debekatzen da. Helburu medikoei lotutako probak bakarrik egin daitezkeela dio, gaitz genetikoak identifikatu ahal izateko, eta giza

genoma aldatzeko ebakuntzak, prebentziozko, diagnostikoko edo terapiako arrazoiengatik onartuko direla.

Sexu-aukeraketarako laguntza-teknikak debekatzen dira, baldin eta hautaketa horrek sexuari lotuta dagoen herentziazko gaixotasun larri bat saihesteko helburua ez badu.

c).- Ikerketa zientifikoari buruzko arauak.

Printzipioz, mugarik gabeko ikerketa onartzen da, baldintza batzuk betez gero:

- pertsonekin esperimentuak egitea debekatzen da, salbuespen batzuk izan ezik (beste metodorik ez balego antzeko emaitzak lortzeko, eta pertsonentzat esperimentuaren arriskuak beronen etekinekin parekatuz minimoak direnean).
- esperimentu horien proiektua eskuduntza duten agintariek onartua izatea.
- behar den informazio guztia ematea esperimentua jasango duten pertsonei, beraien eskubideak azalduz.
- idatziz ematea baimen zehatza (pertsonak berak edo beraien ordezkari legalak).
- In vitro umekiekin esperimentazioa onartzen da legeak nazio bakoitzean horrela baimentzen duenean, baina giza umekiak esperimentatzeko heburuarekin sortzea debekatzen da.

Azkenean, 1988ko urtarrilaraen 12an, Paris-en sinatu zen Europako Kontseiluko Protokolo bat, aipatutako Hitzarmenari eransteko, gizakien klonazioa debekatuz, gizakien duintasunaren aurka doala eta biologia eta medikuntzaren erabilera ezegokia dela azpimarratuz.

X.- BUKAERA

Oinarrizko eskubideak eta ordenamendu juridiko osoa Konstituzioaren eta Giza Eskubideen Deklarazioaren arabera interpretatzeko premiak (Konstituzioko 10-2. Artikuluak honela agintzen baitu), azaldutako gaia eta arazo guztiak ikuspuntu horretatik aztertzera behartzen gaituzte.

Gainera, giza eskubideen nukleo honek Botere Legegileak emango dituen konponbideak mugatu eta arazoak erabakitzen lagunduko du.

Egia da Zuzenbideak ezin dituela ohiko eskemak jarraitu gai berri hauei gaurko erantzunak ematerakoan, eta horregatik, giza eskubideen bidea gida nagusitzat hartu behar da.

Halere, giza eskubideei buruzko teoriak ere kontuan hartu beharko ditugu gai hau aztertzerakoan: iusnaturalismo berri bat defendatzen dutenak giza eskubideak interpretatzerakoan, edozein manipulazio ez-natural debekatzearen alde egongo dira, naturaren aurka doala argudiatuz, nahiz eta jarrera horrekin teknika horiek ilegalki erabiltzea ebitatzerik lortu ez, aboratuarekin gertatzen den bezala.

Horregatik, orain inoiz baino gehiago, legelariek egiazko eta ez itxurazko gizarte batentzat egin behar dute lan.

Bestalde, kontua ez da bakarrik ea Zuzenbideak gai hauek benetan arautu behar dituen ala ez, araudi hori nola egin behar den baizik. Hots, ea gizartearen garapenari erantzun behar dion edo gizarteak orain arte den bezalakoa mantentzen saiatu behar duen.

Galderarik nagusienak hauexek izango lirateke: nola gurutzatzen dira askatasuna eta zientzia?; zein izan behar du legelariaren papera edo rola momentu hauetan?; errealitatean gertatzen diren egitateak finkatu besterik ez al du egin behar legegileak?

Legelariari paper positibo bat ematen badiogu, beste galdera berri batzuk azalduko zaizkigu: zein izan behar du legegilearen proposamenen zentzua?; korronte zientifiko zehatz batengan eraginik izan al dezake proposamen horrek?; arazo hauei guztiei buruzko proposamenak eskaintzerakoan, noren zerbitzura egon behar du legelariak?

Dena den, edozein erantzunek aukeratuta ere, objektiboki baloratu behar da auzi edo eztabaida hau, sentimendu pertsonalak, erlijiozkoak edo emoziozkoak albo batera utzita, eta teknika hauek izaki askori lagun diezaioketen aukeratzat hartuz (seme-alabak edukitzeko, adibidez).

Honela, Estatuaren esku-hartzeak pertsonaren garapena bermatzen duten aurrerapen zientifikoak sustatzen lagundu beharko du, eta pertsonaren eskubideak urra ditzaketen aurrerapenak, Konstituzioko ikuspegitik ikusita, kalte horiek saihesteko moduan arautu beharko dira.

Konstituzioak pertsonaren babesari goi-mailako kategoria ematen diola eta Nazioarteko zenbait Hitzarmen (Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala, Giza Eskubikeen Hitzarmen Europarra, Umearen Eskubideen Hitzarmena...) bide beretik doazela, eta eskubide hauek edozein ekintza edo aurrerapen mugatzen dutela aintzakotzat hartuz, garbi dago Zuzenbidearen eta Zientziaren arteko gatazkek konponbidea aurkituko dutela, gizarte osoaren eta gizaki guztien onerako.